

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN BITARTEKO PROPIOA DEN “GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAU” SOZETATE PUBLIKOKO ZUZENDARI TEKNIKOAREN LANPOSTURAKO ALDI BATERAKO BITARTEKO LAN-KONTRATUKO LANGILEEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTEN OINARRIEN ZIRRIBORROA.

LEHENA- DEIALDIAREN XEDEA

GHK, SAU Gipuzkoako enpresa publikoa da, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren menpekoa, eta lurraldeko udal-hondakinak ontzi, organiko eta nahasketa ataletan lantzea du helburu.

Honako oinarri hauen helburua da langileen hautaketa-prozedura arautzea, presazko izapidetzearen bidez, Zuzendari Teknikoaren lanpostua bitartekotasunez betetzeko, karguaren titularrak ordezkatzeko, hura nahitaezko eszedentzian baitago, eta lanpostua gordea du.

Deialdia premiazkoztat jo da lanpostu hori garrantzitsua baita GHK, SAUK eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak ohi bezala funtzionatu ahal izateko, eta beharrezkoa baita Zuzendari Teknikoaren lanpostuari atxikitako langile bat izatea, postua aldi baterako bete gabe dagoelako, titularrari nahitaezko eszedentzia aitortu zaio eta.

Deialdiko hautaketa-prozesua berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan eta egokitasun-irizpideetan oinarrituta egingo da, eta publikitatea eta lehia bermatuko dira.

Besteak beste, lanpostuko zeregin nagusiak honako hauek dira:

- Hondakinak tratatzeko bost instalazioek behar bezala funtzionatzen dutela kontrolatzea:
 - Bereziki, errefusaren eta biohondakinen atalek.
 - Errendimenduak, kalitateak, gasen eta efluenteen arazketa, etab.
- Instalazioen ingurumen arloko kontrola eta zaintza, eta horien emakidadunek eta operadoreek ingurumen-betebeharrak betetzen dituztela ziurtatzea.
- GHK, SAUK eta haren emakidadunek/operadoreek agintari eskudunei bidali behar dieten dokumentazioa kudeatzea.
- Hondakinak balioztatzekeo prozesuen eta sistemen hobekuntzak aztertzea eta izapidetzea.
- Zuzendaritza Nagusiari GHK, SAUren eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kontratu guztiak kontrolatzen eta zaintzen laguntzea.
- Gobernu-organoei aholkularitza teknikoak ematea.

Hauek dira eskatutako gaitasun nagusiak:

- Zeregin horiek betetzeko gaitasuna eta zeregin horiei buruzko ezagutza espezifikoa.
- Kudeatzeko eta antolatzekeo gaitasuna.
- Erantzukizuna, ekimena, zehaztasuna, gaitasun analitikoak eta lidergoa.

Kontratazioa bitarteko lan-kontratuaren modalitatean egingo da, Langileen Estatutuaren 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, gehienez ere 3 hilabeteko probaldiarekin, eta eszedentzia-egoeraren iraupenarekin lotuta egongo da, lanpostua gordeta baitago.

2025ean esleitutako ordainsaria 78.000 euro gordinekoa da urtean (Elkarkidetzaren barne).

Deialdi honi *Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 261. zk., 2015/10/30) 52., 53., 54. eta 55. artikuluetan xedatutakoak aplikatuko zaio.*

Sozietatearen webgunean (www.ghk.eus), Lanbiden, OTEIC laguntzaile teknikoaren webgunean (www.oteic.com), Interneteko enplegu-orrietan eta idatzizko hedabideetan argitaratuko da deialdia.

BIGARRENA.- IZANGAIEK HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Izangaiek, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Herritartasuna: Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.

b) Adina: Hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Tituluak: Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, arlo teknikoko espezialitateetako unibertsitate-titulua izatea (ingeniaritzak...).

d) Gutxienez 5 urteko esperientzia izatea lehen oinarrian zehaztutako antzeko eginkizunetan eta zereginetan. Esperientzia hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzako, enpresako edo administrazio publikoetako kotizazioaren ziurtagirien kopiak emango dira, eta, hala badagokio, lanpostu bakoitzean betetzen diren eginkizunei buruzko erantzukizunpeko adierazpenak ere bai.

e) Gidabaimena eta ibilgailu propioa izatea, lanpostua Donostian baitago, Gipuzkoako Ingurumen Gunean, Zubietan.

f) Gaitasun funtzionala: Gaixotasunik ez izatea eta lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzearekin bateraezina den muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

g) Gaikuntza: Diziplina-espediente bidez edozein herri-administrazioarako edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoetarako zerbitzutik berezia ez egotea, eta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikoetarako erabateko desgaikuntza edo desgaikuntza berezia ez izatea. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ez egotea desgaituta edo egoera baliokidean, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iristea galarazten duenik.

Izangaiek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute parte hartzeko eskabide-orrian, baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko. Hori agiri bidez egiaztatzeko eskatuko zaio hautatua izan den hautagaiari.

HIRUGARRENA- HAUTAKETA-PROZESUA

PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA, MODUA ETA LEKUA.

EPEA: 30 egun natural, eskaintza GHK, SAUren helbide elektronikoan (<https://ghk.eus/ofertas-de-empleo.htm>) argitaratzen denetik aurrera, zehazki, 2025eko otsailaren 28tik martxoaren 29ra arte.

MODUA: Parte hartzeko eskaerak oinarri hauei erantsitako parte hartzeko eskaera-inprimakian aurkeztuko dira, eta horrekin batera honako hauek ere aurkeztuko dira:

- CV eguneratua.

- Lehiaketaren 1. Fasean balioztatu beharreko merezimenduen egiaztapenak (euskara, ingelesa, lanbide-esperientzia eta prestakuntza osagarria), balioztatu beharreko merezimendu bakoitzerako eskatzen den dokumentazioaren arabera.

TOKIA: Parte hartzeko eskaerak aurkezteko tokia edo bitartekoak:

- E-mail bidez: info@ghk.eus
- Aurrez aurre edo posta ziurtatuaren bidez, bidalketa-data egiaztatuta, GHK, SAU sozietatearen Erregistro Orokorrean (Gorostutza, 2-1 20160 Donostia), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

HAUTAGAIK ONARTZEA

OTEIC laguntzaile teknikoak onartuko du 2. oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eta prozeduran onartzen diren hautagaien behin-behineko zerrenda.

Prozesua amaitutakoan, hautatua izan den izangaiari eskatuko zaio prozesu honetan eskatu eta balioztatu den jatorrizko dokumentazioa aurkezteko. Dokumentazio hori aurkeztu ezin badu, prozeduraren xede den lan-kontraturako eskubidea galduko du.

1. FASEA. MEREZIMENDU-LEHIAKETA. PUNTUAZIOA. 30 puntu

Hautagaiek parte hartzeko eskaera-inprimakian arrazoitutako merituak balioztatuko dira; hautagaiek, erantzukizunpeko adierazpen bidez, bertan zehaztu beharko dituzte balioztatuko diren irizpideei dagozkien alderdi guztiak. Hori guztia, halaber, eskatutako egiaztagirien kopiai alde batera utzi gabe, eta dena, honako honen arabera:

a) **Euskararen ezagutza:** B2 mailaren ziurtagiri ofiziala edo baliokidea (2. HE): 3 puntu.
Egiaztagiria: Ziurtagiri ofizialaren kopiaren bidez egiaztatuko da.

b) **Ingelesaren ezagutza:** B1 mailaren ziurtagiri ofiziala edo baliokidea: 2 puntu.
Egiaztagiria: Ziurtagiri ofizialaren kopiaren bidez egiaztatuko da.

c) **Lan-esperientzia** erantzukizun-maila eta -edukia berdinak edo antzekoak diren lanpostuetan, parte hartzeko eskatutakoaren osagarri gisa.

Gehienez ere 15 puntu emango dira, 0,20 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko, eta ez dira balioztatuko oinarri hauetan prozesuan parte hartzeko baldintza gisa eskatutakoez gain 10 urtetik gorako iraupena duten esperientziak.

Nolanahi ere, esperientzia profesionala balioztatzeko orduan, betiere aurreko paragrafoetan ezarritako mugen baitan, ehunekoak esleitzeko irizpideak ezarri ahal izango dira, erantzukizun-mailaren antzekotasunaren eta bete beharreko lanpostuaren eginkizunen arabera. Horrela, % 100eko antzekotasunak (erantzukizun-maila eta deitutako lanpostuaren zeregin berdinak, baita antzeko ingurune profesionaletan ere) atal honetan ezarritako balioespena izango du; proportzionalki murriztuko da, baldin eta aipatutakoen guztiz antzekoak ez badira, edo neurri

txikiagoko edo ezaugarri desberdinak dituzten edo dedikazio partzialak dituzten erakunde edo entitateetan izan bada esperientzia hori.

Egiaztagiria: Esperientzia hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzako kotizazio-ziurtagirien edo enpresen edo administrazio publikoen ziurtagirien kopia aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, lanpostu motari eta betetako eginkizunei buruzko erantzukizunpeko adierazpenaren kopia ere bai.

d) **Prestakuntza osagarria**, lanposturako eskatutako eremuekin zerikusia izanez gero. Ikastaroei dagokienez, 3 puntu emango dira prestakuntzako 50 orduko, eta gehienez 10 puntu emango dira.

Egiaztagiria: Egindako ikastaroen ziurtagirien kopiaren bidez egiaztatuko da, eta ikastaroen iraupena ordutan adierazi beharko da.

OTEIC laguntzaile teknikoak esperientziaren ezaugarriak eta prestakuntza-edukiak balioztatuko ditu, lanposturako onuragarri izan daitezkeen onuraren arabera.

Hurrengo fasera puntuaziorik handiena duten 15 izangaiak sartuko dira, eta, berdinketa egonez gero, kopurua handitu egingo da, puntuazio bera duten guztiak barne hartu arte.

Hautaketa-prozesuan onartutako hautagai-kopurua 15etik beherakoa bada eta, ondorioz, aipatutako mozketaren irizpidea aplikatu beharrik ez badago, 2. Fasera igaro ahal izango da, aurreko fasea ebatzi arte itxaron gabe.

1. Faseko emaitzak GHK, SAUren gardentasun-orrian argitaratuko dira. Interesdunek emaitzen aurkako alegazioa jarri ahal izango dute, argitaratu eta hurrengo bi egun balioduneko epean.

2. FASEA. CURRICULUM-ELKARRIZKETA ETA GAITASUN-PROBA. PUNTUAZIOA. 70 puntu

Hautaketa-prozesu hau izapidetzeko kontratatutako laguntzaile teknikoak curriculum-elkarrizketa eta gaitasun-proba egingo dizkie aurreko fasean ezarritako mozketaren irizpidea gainditu duten hautagaiei, izangaiak lortu nahi duen lanpostuaren profilaren ezaugarrietara zenbateraino egokitzen den balioztatzera bideratuta.

Fase honetan, deitutako lanpostuaren berezko zereginak behar bezala garatzeko eskatzen diren gaitasun generikoak eta zeharkakoak balioztatuko dira, honako hauek nabarmenduta: ikuspegi estrategikoa; konpromisoa eta erantzukizuna; planifikatzeko, kudeatzeko, antolatze eta kontrolatzeko gaitasuna; ekimena; zehaztasuna; ikasteko gaitasuna; komunikaziorako eta lidergorako dohainak; taldean lan egiteko gaitasuna; erabakiak hartzeko gaitasuna; pertsonekin aritzeko trebetasunak.

Laguntzaile teknikoak puntuak esleitzeko proposamena egingo du, honako hauen arabera:

- Gaitasun-proba: 15 puntu
- Elkarrizketa: 55 puntu

Gutxienez 35 puntu lortzea beharrezkoa izango da fase hau gainditzeko.

Bigarren fasearen emaitza aurreko paragrafoetan ezarritako moduan argitaratuko da, eta bi egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko. Alegazio horiek aurkeztuz gero, laugarren oinarrian arautzen den hautagaien lehentasun-proposamena eta izendapen-proposamena formulatzeko ekitaldian ebatziko dira.

LAUGARRENA.- IZENDAPENA

Laguntzaile teknikoak hautagaien hurrenkera arrazoitua proposatuko dio GHK, SAUri, hori justifikatzen duen txostenean, eta izapidetutako prozesua zehaztuko du. Prozesu horrek izendapena egiteko erabakia justifikatzeko eskumena duen organoari balioko dio.

BOSGARRENA.- AURKARATZEAK

Deialdi hau, oinarriak eta horren ondoriozko egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako kasuetan eta moduan.

DATU PERTSONALEN BABESA.

GHK, SAU prozesu honetan eskatzen edo sortzen diren datu pertsonalen tratamenduaren erantzulea izango da, prozesu horretan parte hartzen duten pertsonen lanbide-gaitasuna ebaluatzeko, eta horretarako legitimazioa izango du, Datu Pertsonalak Babesteko Europako Erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2020 Errege Dekretuan aurreikusitakoekin.

Oinarri hauek eta egindako deialdia GHK, SAUren Administrazio Kontseiluak onartu ditu, eta horien premia eta premia justifikatu dira.

Langileak hautatzeko oinarrien proposamena, GHK, SAUko zuzendari nagusiak emana, Administrazio Kontseiluak azter dezan eta, hala badagokio, onar dezan.

Donostian, 2025eko otsailaren 26(e)an

GHK, SAUko Zuzendari Nagusia